

2025

# BERDINTASUNAREN ALDE GIZONEKIN ETA MASKULINITATEEKIN LAN EGITEKO EUSKAL ZERBITZUA

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa



Erakunde autonomiaduna Organismo Autónomo del  
**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**

## Gizonduz

[www.euskadi.eus/gizonduz](http://www.euskadi.eus/gizonduz)



# AURKIBIDEA

## Sarrera

### 1. Alderdi orokorrak


### 2. Prestakuntza-programa

#### 2.1. Aurrez aurreko prestakuntza

- IKASTARO OROKORRAK
- LANTEGI ESPEZIFIKOAK
  - “Gazteak berdintasunean” gazteentzako tailerrak
    - Gazteak: ikasketa-zentroetarako prestakuntza
    - Harrera-baliabideetarako prestakuntza
  - Enpresetarako lantegiak
  - Gizonekin esku-hartze soziala egiteko prestakuntza
  - Berdintasunaren aldeko gizon nagusientzako tailerrak
  - “Zurumurru sexisten aurka: txutxu-mutxurik ez” lantegia
  - Berdintasunaren aldeko gizonen taldeei laguntzeko, haien bidelagun izateko eta taldeok sustatzeko lantegia

#### 2.2. *Online* ikastaroak

#### 2.3. Ikastaro mistoak (*online* eta aurrez aurre)



## Sarrera

Gizonduz, **Gizonekin eta Maskulinitateekin Berdintasunaren Alde Lan Egiteko Euskal Zerbitzua da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak kudeatua.** Gizonen kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea du helburu, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde, bai eta maskulinitate askotarikoak eta berdinzaleak sustatzea ere.

Gizonduzen sentsibilizazio eta prestakuntza-programa hasi zenetik (2009ko martxotik) 2024ko abendura bitartean, 35.000 lagunek (% 60 gizonak) hartu dute parte bere ikastaroetan, eta asebetetze-maila oso altua izan da.

Bere prestakuntza-proposamenarekin, Gizonduzek honako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Emakumeen eta gizonen artean desberdinkeriak eragiten dituzten mekanismoak ulertzen eta horien gainean kontzientziazioa laguntzea; bereziki, genero-kontzeptuari dagokionez. Horretarako, ikusgai egiten ditu bai generoak gizartean eragiten duen egiturazko banaketa, bai banaketa horren ondorioak.
- Feminismoaren inguruko ezagutza eta, era berean, aitortza sustatzea, feminismoa maskulinitate hegemonikoak deseraikitze esparrutzat hartuta.
- Gizonek gaur egungo sisteman egiten duten sozializazio-prozesua identifikatu eta ezagutzera ematea (talde-mailan nahiz norbanakoaren mailan), gure gizartean nagusi diren eredu maskulinoen berrikuspen kritikoa egitea eta aldaketarako nahiz eraldaketarako bestelako erreferenteak indartzea, berdintasunari bide emango diotenak.
- Berdintasunaren aldeko konpromiso indibidual eta kolektiboa sustatzea gizonengan eta gizonak indarkeria matxista mota guztien kontra jar daitezen lortzea.
- Berdintasunaren aldeko gizonen lanean dauden antolakuntza-esperientziak (gizonen taldeak, talde mistoak...) ezagutzera ematea eta esperientzia horietara hurbiltzea, «ekinez ikasi» ikaskuntzarako erreferentziazko eredu gisa.

# 1. Alderdi orokorrak

Prestakuntza hau gizonei zuzenduta dago bereziki; hau da, norbanakoaren mailan nahiz taldean emakumeen eta gizonen berdintasunak dakarrenaren ezagutzan trebatu edo sakondu nahi duten gizonei eta, halaber, berdintasunaren alde –norbanakotik, sozialki nahiz profesionalki– lan egiteko moduak jorratu nahi dituzten gizonei. Hori guztia, gizonak berdintasunaren aldeko gizarte-aldaketan eragile sustatzaile bihur daitezen laguntzeko asmoz.

Nahiz eta emakumeak ez izan programa honen lehenetsuneko hartzaileak, parte har dezakete, maskulinitate hegemonikoaren prozesuek guzti-guztiori eragiten diguten neurrian. Edonola ere, emakumeak gehienez ere (gutxi gorabehera) parte-hartzaileen % 30 izan daitezen saiatuko gara.

Prestakuntza-ikastaroak euskaraz edo gaztelaniaz emango dira, eskariaren arabera.

Prestakuntza-taldeek gutxienez 15 lagun eta gehienez 25 lagun izango dituzte; halere, kopuru horiek aldatu ahal izango dira, kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera.

Gizonduz programaren prestakuntza guztia doakoa da, eta aurrez aurre, *online* nahiz modalitate mistoan egin daiteke.

Ikastaroak antolatzea eskatzeko, [www.euskadi.eus/gizonduz](http://www.euskadi.eus/gizonduz) web-orria erabil daiteke, edo [emakunde.gizonduz@euskadi.eus](mailto:emakunde.gizonduz@euskadi.eus) helbidera idatzi.

## 2. Prestakuntza-programa

### 2.1. Aurrez aurreko prestakuntza

Ikastaro hauek erakundeek, kolektiboek, sindikatuek, enpresek, GKE-ek edo beste antolakunde mota batzuek eskatuta ematen dira.

Ikastaroen helburua da kolektibo espezifikoetan dauden gizonengan eragitea (hala nola, sindikatueta eta alderdi politikoetako ordezkariengan, auzo-elkarteetako eta/edo kolektibo sozialetako presidenteengan, zuzendariengan eta abarrengan), berdintasunaren aldeko

erreferentziazko eredu bihur daitezen haien ingurunean.

Prestakuntzak, halaber, erakundeak eta lanbide-taldeak ditu xede (irakasleak, funtzionarioak, politikariak, sindikatueta edo GKE-etako kideak...), balio-aldaketa sustatzeko interes estrategikoa baitute. Horrekin, programak «ur-uhinaren» efektua edukitzea da asmoa; hau da, prestakuntza zuzenean jaso ez dutenengana iristea.

## Ikastaro orokorrak

Kolektiboei eta taldeei zuzendutako aurrez aurreko prestakuntza-ikastaroak bi motatakoak dira: hastapenekoak eta sakontzekoak.

- Hastapeneko ikastaroak: hastapeneko ikastaro bakoitzak gai espezifiko bat planteatzen du, eta 4 ordu irauten ditu.
- Sakontzeko ikastaroak: iraupena premia eta eskaera zehatzen arabera alda daiteke. Gaiei dagokienez, sakontzeko bi ikastaro mota eskaintzen ditugu:
  - Gai bakarrekoak. Gai zehatz batean aurrera egitea dute xede, eta denbora gehiago eskaintzen diete gai horrekin lotutako edukiei, parte-hartzaileentzat baliagarriagoak izan daitezten.
  - Gai anitzekoak. Hainbat gai konbinatzen dituzte ikastaro bakar batean. Ikastaro hauen gaiak eta iraupena hartzaileen eskaera zehatzen eta espezifikotasunen arabera finkatuko dira.

Prestakuntza-eskaintza honako hiru ardatz hauetan egituratzen da:

- A) Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa
- B) Gizonak, maskulinitateak eta indarkeria matxista
- C) Gizonak, maskulinitateak eta arrisku-jarrerak

Aurrez aurreko prestakuntza-ikastaro guztiek oinarri teoriko komun bat dute, honako hauek aztertzeko: emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien eta matxismoaren kausak eta ondorioak, identitate maskulinoen sozializazioa eta horren ondorioak eta emakumeen eta gizonen berdintasunari bide emango dioten erreferente positiboen ezagutza eta sustapena. Bloke komun horri eduki espezifikoak gaineratu ahal zaizkio, kolektibo zehatz bakoitzaren premia zehatzen eta landu beharreko helburuen arabera.

Ikastaro guztien elementu komunak:

- Emakumeen eta gizonen desberdinkeria sozialak.
- Identitate maskulinoen sozializazio-prozesuak.
- Gizonak, boterea eta maskulinitateak.
- Gizonak berdintasunaren aurrean: aldaketak eta erresistentziak.

Ardatz horietan guztietan, eduki komunez gainera, honako eduki espezifiko hauek lantzen dira ikastaro bakoitzean.

### A) «Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta balio-aldaketa» ardatzaren ikastaroak

- Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak.
- Aitatasun arduratsu eta berdinzaleak.
- Gazteak, maskulinitateak eta berdintasuna.
- Gizonak, maskulinitateak eta emakumeen ahalduntze-prozesuak.
- Gizonak komunikabideetan.
- Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta giza eskubideak.
- Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna garapenerako lankidetzan.
- Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta kirola.
- Gizonak, maskulinitateak eta klima-aldaketa.

### B) «Gizonak, maskulinitatea eta indarkeria matxista» ardatzaren ikastaroak

- Gizonak, maskulinitateak eta laneko sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioa.
- Gizonak, maskulinitateak eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa.
- Gizonak, maskulinitateak eta tratu onak.
- Gizonak, berdintasuna eta homofobia.
- Gazteak, maskulinitateak, teknologia berriak eta berdintasunezko harremanak.

### C) «Gizonak, maskulinitateak eta arrisku-jarrerak» ardatzaren ikastaroak

- Gizonak, maskulinitateak eta laneko arriskuen prebentzioa.
- Gizonak, maskulinitateak, bide-heziketa eta istripuen prebentzioa.
- Gizonak, maskulinitateak, delituak eta espetxea.
- Gizonak, maskulinitateak eta droga-mendekotasunen prebentzioa.



## Lantegi espezifikoak

Aurrez aurreko prestakuntzaren barruan, askotariko lantegi motak eskaintzen ditugu. Aurrez aurreko ikastaroetatik bereizten dira, iraupenagatik, helburuengatik, hartzailleengatik eta edukiengatik.

### Gazteak Berdintasunean” gazteentzako tailerrak

#### Ikasketa-zentroetarako prestakuntza

Proiektu hau hezkuntza-zentroetako eta institutu etako ikasleei (DBH 3koei eta 4koei eta Batxilergokoei), Lanbide Heziketako ikasleei (ahal dela, lehenengo mailakoei) eta Euskadiko irakaskuntza ez-arautuko ikasleei zuzenduta dago, berariaz.

Ikastaroan, tresna digital bat erabiltzen da, sei bineta dituen komiki interaktibo bat. Prestakuntzan, hainbat lantegi egiten dira. Lantegi horietan, zenbait unitate didaktiko lantzen dira, komikiko pertsonaia nagusiek bizitako egoerei buruzkoak. Lantegietan, gizonei, maskulinitateei, sexismoari, homofobiari, indarkeria matxistari, tratu onei, arrisku-jarrerari eta abarri buruz hausnartzen da.

Komiki interaktiboarekin batera, “Kapela bidezko sedukzioa” mahai-jokoa erabiltzen da. Bada, emakumeen eta gizonen berdintasunari bide ematea da jolas hezkidetzaille horren helburua, eta, bereziki, maskulinitate berdinzaleak sustatzea, heziketa emozionala eta trebetasun sozialak lantzeko estrategien bidez.

#### [Prestakuntza-proposamen osoa](#)

#### Harrera-baliabideetarako prestakuntza

EAEko gazteekin eta harrera-zentroekin lan egiteko prestakuntza

Prestakuntza hau, batetik, EAEn familiarik ez duten eta adingabeak hartu edo babesteko zentroetan dauden nerabe eta gazteak emakumeen eta gizonen berdintasun-gaietan sentsibilizatu eta trebatzera dago zuzenduta.

Bestetik, biztanle horiekin esku hartzen duten zentro, antolakunde edo erakundeetako profesionalak trebatzea du helburu.

Ikuspegi intersektionaletik egiten dugu lan, programan parte hartzen duten nerabeen eta gazteen errealitatea gurutzatzen duten askotariko aldagaiak kontuan hartuta, eta metodologia aktibo eta parte-hartzailea erabiltzen dugu, ezagutza eraikitzekeko elementu nagusi gisa.

#### [Prestakuntza-proposamen osoa](#)

## Enpresetarako lantegiak

Prestakuntza honen helburua da maskulinitateek berdintasunarekin duten harremana eta harreman horrek ekoizpen-jarduerarekin lotutako eremu zehatzetan duen isla aztertzea (adibidez, enpresa-antolaketan eta lidergo-erduetan, erantzunkidetasunean eta kontziliazio-neurrietan, arrisku-jarreretan eta laneko sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpenaren prebentzioan...), laneko harremanetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko xedez.

- Gizonak, maskulinitateak, berdintasuna eta lan-eremua
- Gizonak, maskulinitateak, zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna
- Gizonak, maskulinitateak eta laneko arriskuen prebentzioa
- Maskulinitateak eta laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioa

### Prestakuntza-proposamen osoa

#### Gizonekin esku-hartze soziala egiteko prestakuntza

Antolakundeetan, elkarteetan edo erakunde publikoetan zaugarritasun-egoeran dauden gizonekin lan egiten duten trebatzaileei zuzenduta dago lantegi hau, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantzko balio-aldaketari bide emateko behar diren ezagutzak, ikaskuntzak eta metodologiak ikas ditzaten.

Lantegiak 12 eta 16 ordu artean iraun ditzake, eta, denbora bat igarota, ebaluazio-saio bat egingo da, emaitzak baloratzeko. Lantegia moduluka planifikatzen da, eta ikasleen egoeretara eta modalitateetara egokitu daiteke iraupena.

### Prestakuntza-proposamen osoa

#### Berdintasunaren aldeko gizon nagusientzako tailerrak

60 urtetik gorako gizonen artean hausnarketa-gune bat sortzea da lantegi honen helburua, maskulinitatearen eredu tradizionalak beren bizi-prozesuetan izandako eraginaren inguruan pentsa dezaten eta, horrela, bizi-kalitatea (autonomia, harremanak, osasuna eta abar) hobetu dezaten, ingurunean eragingo duten jarrera berdinzaleak sustatzearekin batera.

1,5 orduko bost saiotan garatzen da, eta, saiootan, hainbat gai jorratzen dira (hala nola, gizonek bizitako esperientzia, enplegutik erretirorako trantsizioa, zaintza-lanak eta norbere buruaren zaintza, harremanak...), metodologia dinamiko eta parte-hartzaile batekin, baterako hausnarketarako eta entzute aktiborako egokia baita hori, konfiantzazko eremu bat sortze aldera.

### Prestakuntza-proposamen osoa

“Zurrunurru sexisten aurkako tailerra: Txutxu-



mutxurik ez"

Beren antolakundeetan berdintasunezko jarduerak bultzatu nahi dituzten erakunde, talde edo kolektibo guztiei zuzenduta dago lantegi hau. Helburua erreferentziazko pertsonak (batez ere, gizonak) beren jardun-eremuetan trebatzea da, beren izenean edo elkartearen ordezkatzen, eremu indibidualean, lanekoan edo kolektiboan zurrumurru sexistak gezurtatzen lagundu dezaten.

[Prestakuntza-proposamen osoa](#)

Berdintasunaren aldeko gizonen taldeei laguntzeko, haien bidelagun izateko eta taldeok sustatzeko lantegia

Berdintasunaren aldeko gizonen taldeak sortzen laguntzea eta sustatzea da lantegi mota honen helburua.

Ikastaroak modu espezifikoan egituratzen dira, talde eskatzaileen premia zehatzei erantzun ahal izateko. Halaber, ordu-kopurua malgua izan ahalko da, talde bakoitzaren errealitate zehatzera egokitzeko xedez.

Prozesuan, Gizonduz programaren prestakuntza osatzen duten ardatzetan oinarrituriko eduki pedagogikoak emango dira, eta programaren ibilbidean berdintasunaren aldeko gizonen taldeekin egindako askotariko lan-esperientziak ekarriko dira.

## 2.2. Ikastaro mistoak (aurrez aurrekoak eta *online*)

Modalitate honek aurrez aurreko prestakuntza eta *online* prestakuntza konbinatzen ditu; horrela, aurrez aurreko ikastaroetako edukiak *online* sakondu ahalko dira, eta jarraipena egin ahalko da. Halaber, antolakundeetan aurrez aurreko prestakuntzari denbora eskaintzeko orduan agertu ohi diren zailtasunak saihestuko dira.

Ikastaro mistoek hamabi orduko iraupena dute gutxienez. Ikastaroetan, ikasleek aurrez aurreko ikastaro

pertsonalizatua egiten dute (lau ordukoa gutxienez), eta *online* prestakuntzarekin osatzen dute hori.

Ikastaro mistoetan eta aurrez aurreko ikastaroetan eduki berberak eskaintzen dira, eta antolakunde eskatzaileen premietara egokitzen dira.

## 2.3. *Online* ikastaroak

*Online* prestakuntzak hainbat ikastaro dauzka, non,

besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko gaiekin, desberdinkerien jatorriarekin eta gizonen sozializazio-prozesuekin lotutako kontuak jorrotzen baitira. Analisi horren barruan, garrantzi berezia ematen zaio gizonek zaintza-lanetan dituzten eginkizunen azterketari, baita aniztasunean eta berdintasunaren sustapenean oinarritzen diren erreferente berriak eraikitzean gure gizartean sortzen diren aldaketan eta erresistentzien azterketari ere. Halaber, maskulinitate tradizionalak eta desberdinkeriek kirolaren munduan duten eragina aztertzen da, eremu horretan berdintasuna sustatzen eta indarkeria matxista desagerrarazten lagunduko duten estrategiak ezartzeko.

## Gizonak, maskulinitateak eta berdintasuna

Online prestakuntzako ikastaroa. 10 ordu.  
Urte osoan egin daiteke.

[Informazio gehiago](#)

## Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak

Online prestakuntzako ikastaroa. 25 ordu.  
Urtean, ikastaroaren bi edizio egiten dira.

[Informazio gehiago](#)

## Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola

Online prestakuntzako ikastaroa. 30 ordu.  
Edizioa euskarazkoa da.

[Informazio gehiago](#)

